

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 1,6 milioi euro eman ditu Iruñeko Eraikuntzako X. Eskola Tailerra finantzatzeko

Goicoechea kontseilariak eta Enrique Maya hiriburuko alkateak gazteak laneratzeko programako jarduerak inauguratu dituzte

Martes, 06 de septiembre de 2011

Iruñeko Eraikuntzako X. Eskola Tailerrean gaur hasi dituzte jarduerak ekitaldi baten bidez. Han izan dira Lourdes Goicoechea Zubelzu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria, Enrique Maya Iruñeko alkatea, Ignacio Barberena zentroko zuzendaria eta beste agintari batzuk.

Eskola Tailerretan 16 eta 24 urte arteko gazte langabetuek lan egin eta lanbiderako okupazio heziketa jasotzen dute eta benetako lanetan jarduten dira, hala, lanbiderako trebatzen dira eta lan merkatuan sartzen laguntzen zaie. Aurreikusitakoaren arabera, eskola tailerrean parte hartzen dutenen % 70ek lana lortzen dute urtebeteko trebakuntza aldia amaitzean (3.600 ordu, horietatik 3.260 ordu espezialitateko trebakuntza teknikorako eta 340 ordu trebakuntza osagarriko).

Gaur ireki duten eskola tailerraren aurrekontua 2.261.841 euro da. Zenbateko horretatik 1.623.776 euro Nafarroako Gobernuak eman ditu Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, eta gainerakoa (638.064 euro) Iruñeko Udalak eman du erakunde sustatzailea den aldetik. Trebakuntzarako programa Nafarroako

Gobernuak eta Europako Gizarte Funtzak ere finantzatzen dute, Nafarroako Industria eta Merkataritza Ganberarekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean.



Iruñeko Eraikuntzako Eskola Tailerraren irekiera ekitaldia. Goicoechea kontseilaria eta Maya alkatea Ignacio Barberena zuzendariaren (erdian) azalpenak entzuten.



Iruñeko Eraikuntzako Eskola Tailerraren irekiera ekitaldira agertu direnak

Eskola tailerren programa 1986an jarri zen abian Nafarroan, eta orduetik 2.704 ikaslek hartu dute parte. Hasieratik, Nafarroako Gobernuak 47,53 milioi euro inbertitu ditu proiektuan.

Eraikuntzako Eskola Tailerrak Landaben Poligonoan hasi ditu gaur jarduerak, eta eraikinak birgaitzeko prestakuntza eskaintzen du hiru espezialitatetan: igeltserotza, birgaitzeak eta berritzeak (30 plaza), hargintza eta ondarearen zaintza (15 plaza) eta arotzeria, muntaketa eta zaharberritzea (15 plaza).

Guztira 60 ikasle daude eskola tailerrean, eta horietatik 6 emakumeak dira. Ikasleen batez besteko adina 19 urte da eta % 60k ez du inoiz ere lanik egin. Ikasketa mailari dagokionez, % 33k lehen mailako ikasketak baino ez ditu, % 32k DBHko bigarren mailara arte ikasi du, eta gainontzekoak DBHko laugarren mailara arte. % 47k jatorri etorkina dute.

Irakasleen tadea eskolako zuzendariak, irakasten diren lanbideetako 8 monitoren, 2 arkitekto teknikok (3/4eko lanaldia) eta oinarrizko hezkuntzako irakasle batek (lanaldi erdia) osatzen dute.

Eskola tailerren helburua ikasleek egiten duten lana komunitatearen ongizaterako izatea ere bada, egindako lana gizarte obra edo zerbitzu gisa itzulita. Eraikuntzako eskola tailerraren kasuan, ikasleek Iruñeko hainbat gizarte obratan parte hartuko dute: San Juan auzoko tutoretzapeko Txoko Berri apartamentuetatik lau berritu, Zolina kaleko udalaren bulegoak berritu, udal hilerriko itxiera murrua zaharberritu, San Pedro Monasterio Zaharraren barruko patioa zolatu eta kaleetan seinaleak jarri, San Francisco ikastetxeko egurrezko leihoak berreraiki eta etxabeak eta udalaren etxeak egokitzeko arotzeriako hainbat obra burutzeko.